GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Federación Guipuzcoana de Montaña

**SENDERISMO BATZORDEA – COMITÉ DE SENDERISMO**

KIROL ETXEA * Anoeta Ib., 5 * 20014 DONOSTIA * Tel. : 605.234.592 * e-mail: gmf-senderismoa@kirolak.net

# GIPUZKOAN BIDEZIDORRAK HOMOLOGATZEKO IRIZPIDEAK

**1.- Ibilbide pilaketa handiak** saihestu egingo dira herri eta eskualde guztietan; oreka bilatuko da bidezidorrak dauden guneetako dimentsioekin. Irizpide orokor moduan, herri bakoitzean ez dira hiru ibilbibide baino gehiago (PRak eta SLak) homologatuko. Hedadura handia duten herrietan gehienez sei ibilbide izatea proposa daiteke, eta hedadura txikiko herrietan ibilbide bat edo bi homologatuko dira, betiere udalerriaren egituraren eta baliabideen arabera.

**2.-** Ibilbideak aukeratzeko lehentasunak ezarriko dira, eta **ondoko araudia bete beharko dute**:

- Asfaltoa eta zementua saihestu egingo dira, ahal dela. PR-etan ibilbidearen %20 baino gehiago ezin izango da asfaltu edo zementuzko zoladuratik joan eta SL-en kasuan %50ª izango da muga.
- Tontorretatik igarotzea saihestu. Kasu bakoitza aztertuko da.
- Desnibel handiko ibilbideak saihestu. Kasu bakoitza aztertuko da.
- Interesguneak dauzkaten ibilbideak bultzatu: historikoak, kulturalak, ingurunekoak, tematikoak, historiaurrekoak, arkitektura, paisaia, etnografia eta abar.
- Ibilbide zirkularrak bultzatu.
- Garai bateko komunikazio ibilbideak zaharberritu eta berreskuratu, nahiz eta gaur egun inor igarotzeko moduan ez egon.
- Ahalik eta erabiltzailerik gehienei zuzendu jarduera.
- Herrien arteko ibilbideak erabili.
- Ahal dela herribideak erabili.
- Ibilbideak hasten diren lekura garraio publikoa irits dadin saiatu.

**3.-** Ibilbide laburrak (PR) marka **zuriz eta horiz** balizatuko dira, herribideak (SL) **zuriz eta berdez** balizatuko dira, ibilbide handiak (GR) **zuriz eta gorriz eta** ibilbide arteko loturak **txuri eta berdez** (LOT) egun indarrean dagoen eta Senderismo Batzordeek daukaten araudiak ezartzen duen bezala. Balizatzerakoan, ingurumen edo arkeologi gune interesgarriak ez dira pintatuko. Gune interesgarri horiek zein diren jakiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuetarako jo dezakezue.

**4.-** Ibilbideetan, Gipuzkoako Mendizale Federazioak aurrez erabakitako itxura eta egitura duten **seinale bertikalak** jarri ahal izango dira, osagarri moduan, nahitaez jarri beharko direnak ibilbide bat baino gehiago gurutzatzen direnean; betiere aintzat hartuko da ingurunean duten eragina; hori dela eta, materialik, tamainu eta diseinurik egokienak hauek dira: PHLko (presio garaiko laminatua) gezia, 10mm lodiera, 90mm zabalera eta 490mm luzeera totala izango dituena. Sare foraleko geziak horiak izango dira eta sare foraletik kanpokoak berdeak. Bidearen matrikula, toponimoa, distantzia, MIDE denbora eta GR,PR edo SL izena grabatuta joango dira gezian, alde batetik gutxienez.



**5.-** Ibilbideek hasieran eta amaieran argibide taula bat jarri beharko da, ibilbidea bera eta inguruneari buruzko datuak jasoko dituena, honako hauek, besteak beste:

- Neurriak: 120 x 80 cm
- Ibilbidearen enuntziatu egokia:
  - ✓ Matrikula, izena eta ibilbidea bereizten duen kolorea.
- Ibilbidearen interpretazioari buruzko informazioa eta interesguneak:
  - ✓ Irudiak eta testuak.
- Kartografia:
  - ✓ Eskala 1:10.000 eta 1:20.000 artean (taularen azaleraren % 80)
- Altueren eta distantzien profila.
- Ibilbidearen mapa orokorrak:
  - ✓ Gipuzkoa eta udalerria.
- Ibilbidearen zabalerari, lurzoru motari eta desnibelei buruzko informazioa.
- Legenda edo ikur konbentzionalak.
- Senderismo ikurrak eta bakoitzaren esanahia.
- MIDE informazioa:
  - ✓ Ibilbidearen balorazio zehatza eta interpretazioari buruzko laburpena.
- Erakunde sustatzaileen logotipoak.
- Larrialdietarako telefonoa: 112
- Erabilera arauak eta naturagunea errespetatzeakoak.
- Mendian segurtasunez ibiltzeko aholku nagusiak.

Panelak ondoko itxura izango du:



KIROL ETXEA * Anoeta Ib., 5 * 20014 DONOSTIA * Tel. : 605.234.592 * e-mail: gmf-senderismoa@kirolak.net

**6.-** Senderismoko ibilbide bat egiten den aldi oro argitalpen bat gauzatu behar da. GMFko Senderismo Batzordeak erabakitako neurriak eta edukiak eduki beharko ditu argitalpenak. Argitalpenetan ondoko informazioa jaso beharko da: ostatuak, aparkalekuak eta gaua igarotzeko guneak, eta urritasunen bat duten pertsonentzat egokiturik ote dauden.

**7.-** GMFko Senderismo Batzordeko teknikari batek edo erakunde sustatzaileak balizatuko ditu ibilbideak. Erakunde sustatzailea arduratzen bada ibilbideak balizatzeaz, Senderismo Batzordeko kide batek berrikusiko du Espainiako Federazioaren eskuliburuan jasotako balizatze irizpideak betetzen ote diren.

**8.-** Senderismoko proiektuak gauzatu ahal izateko **egungo araudia bete behar da** eta Gipuzkoako Mendizale Federazioan jaso daitekeen **eskaera orria aurkeztu** behar da, Eusko Jaurlaritzak 1996ko maiatzaren 2an onartu zuen senderismo dekretuaren arabera.

**9**.- Erakunde sustatzaileak **ibilbideen mantentze-lana bere gain hartuko du**. Ibilbideen baimena lortzeko, senderismo proiektuaren sustatzaileen ondokoak onartu beharko dituzte:

**Urtero ibilbidearen mantentze lanak burutzea.**
**Gipuzkoako Mendizale Federazioko Senderismo Batzordeak egingo dituen txostenetako oharrei kasu egitea.**
**Bai mantentze lanetarako, nola aipatutako txostena egiteko aurrekontuan partida bat gordetzea (Mantentze txostena egitearen kostu finkoa 100€ izango da PR edo SL bakoitzeko, eta honi, 20€ gehituko zaizkio ibilbidearen kilometro bakoitzeko.)**
**Konpromiso hau bost urteren buruan berrestea.**

Gipuzkoako Mendizale Federazioak urtero lurraldeko ibilbide batzuen azterketa egingo du. 5 urteren barruan Gipuzkoako ibilbide guztiak gainbegiratuko dira.

Sustatzaileak konpromiso hau betetzen ez badu, ibilbideari homologazioa kendu eta bidezidorren erregistrotik kanpo geratuko da. Kasu horretan, sustatzaileak hartuko lituzke bere gain ibilbidean dauden markak eta azpiegitura kentzearen gastuak.

**10.**- Ibilbide homologatuak babesturiko naturgune batetik igarotzen badira, erabat edo zatiren batean, babesturiko lurren kudeatzailearen baimena aurkeztu beharko da.

Donostian, 2011ko otsailaren 2an

GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA
Federación Guipuzcoana de Montaña
**SENDERISMO BATZORDEA – COMITÉ DE SENDERISMO**
KIROL ETXEA * Anoeta Ib., 5 * 20014 DONOSTIA * Tel. : 605.234.592 * e-mail: gmf-senderismoa@kirolak.net

# CRITERIOS DE HOMOLOGACIÓN DE SENDEROS DE GIPUZKOA

1.-En todos los municipios y comarcas se evitará una concentración grande de recorridos, buscando un desarrollo equilibrado de los mismos en relación a las dimensiones de las áreas donde los senderos estén situados. Como criterio general no se homologarán más de tres recorridos de senderismo (P.R,s, SL,s) por municipio. En aquellos municipios que tengan una gran extensión puede plantearse hasta un máximo de seis y en aquellos municipios donde la extensión sea mínima los recorridos a homologarse serán uno o dos, según sea la estructura del municipio y sus recursos.

2.- Prioridades en la selección de los senderos, tienen que cumplir la siguiente normativa:

- Evitar en lo posible los trazados por asfalto y cemento. En los PRs, este tipo de suelo no podrá superar el 20% del senderos y en los SLs este porcentaje sube hasta 50.
- Evitar el trazado por cimas. Se estudiará cada caso particular.
- Evitar trazados de grandes desniveles. Se estudiará cada caso particular.
- Potenciar recorridos con centros de interés: históricos, culturales, ambientales, monotemáticos, prehistoria, arquitectura, paisaje, etnografía, etc.
- Potenciar los recorridos circulares
- Restaurar y recuperar las antiguas vías de comunicación, aunque en la actualidad estén intransitables.
- Dirigir la actividad al mayor abanico de usuarios posible.
- Utilizar vías de comunicación existentes entre poblaciones.
- Utilizar, en la medida de lo posible, caminos públicos.
- Procurar que los inicios de los recorridos dispongan de transporte público.

3.-Los senderos de Pequeño Recorrido se balizarán con marcas blancas y amarillas, los Senderos Locales se balizarán con marcas blancas y verdes , los Grandes Recorridos con marcas blancas y rojas y las uniones entre dos senderos con blanco y verde (LOT), tal y como lo indica la normativa vigente existente y que está en poder de los Comités de Senderismo en cuanto a calidad y cantidad. A la hora de balizar se evitará pintar sobre puntos de interés ambiental o arqueológico. Para conocer estos puntos de interés puede ponerse en contacto con los departamentos de de cultura y desarrollo del medio rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

4.-Los recorridos de senderismo podrán ir complementados con señales verticales, con la forma y estructura predeterminada por la Federación Guipuzcoana de Montaña que serán de obligada colocación cuando existan senderos coincidentes que se entrecrucen y siempre teniendo en cuenta el impacto sobre el Medio Natural, aspecto que obligará a buscar día a día los materiales y diseños más apropiados. Las flechas deberán de ser de PHL, con un grosor de 10mm, una anchura de 90 mm y longitud de 490 mm. Las flechas de la red foral serán amarillas y las de la red municipal verdes. En las flechas deberá aparecer, como mínimo, la matrícula, el topónimo, la distancia, el tiempo MIDE y los colores grabados de GR,PR,SL o LOT.



5.-Al inicio y fin de los recorridos de senderismo habrá que un panel informativo con el recorrido e información de la zona que resulte de interés, entre la que hay que destacar;

- Medidas: 120 x 80 cm
- Enunciado correcto del sendero: Matrícula, denominación y el signo distintivo del color del sendero.
- Información sobre la interpretación del sendero y sus puntos de interés: Imágenes y textos.
- Cartografía: Escala entre 1:10.000 y 1:20.000 (80% de la superficie total del panel)
- Perfil de alturas y distancias.
- Mapas generales de situación del sendero: Gipuzkoa y población.
- Información sobre los anchos del sendero, el tipo de terreno y los desniveles.
- Leyenda o signos convencionales.
- Los signos de senderismo y su significado.
- Información MIDE: Valoración concreta del sendero y el resumen sobre la interpretación.
- Logotipos de las entidades promotoras.
- Teléfono de emergencias: 112
- Las normas de uso y respeto al Medio Natural.
- Principales consejos de seguridad en montaña.



KIROL ETXEA * Anoeta Ib., 5 * 20014 DONOSTIA * Tel. : 605.234.592 * e-mail: gmf-senderismoa@kirolak.net

6.-Siempre que se realice un recorrido de senderismo hay que llevar a cabo una publicación. La publicación deberá tener una medidas y contenidos estipulados por el Comité de Senderismo de la FGM. Los sistemas de divulgación deberían llevar información sobre la restauración, zonas de aparcamiento así como zonas de pernocta y si estos están adaptados o no.

7.-El balizaje de los recorridos lo efectuara un técnico de senderos del Comité de Senderismo de la FGM o el ente promotor del sendero. Si el balizaje de los recorridos de senderismo se realiza a cuenta del ente organizador, un integrante del Comité de Senderismo supervisará la aplicación de los criterios de balizaje que marca el manual de senderos de la FEDME.

8.-Para poder realizar proyectos de senderismo hay que cumplir la normativa existente y cumplimentar la solicitud que se facilitará en la Federación Gipuzkoana de Montaña, en base al Decreto de senderismo aprobado el 2 de mayo de 1996 por el Gobierno Vasco.

9. La entidad organizadora tiene que comprometerse al mantenimiento de los recorridos por un espacio mínimo de cinco años. El promotor del sendero adquiere los siguientes compromisos:

**Realizar trabajos de mantenimiento del sendero anualmente**
**Tener en cuenta los informes de la Federación Guipuzcoana de Montaña.**
**Disponer de partida presupuestaria, tanto para los trabajos de mantenimiento como para el informe mencionado (el costo fijo por sendero PR o SL será de 100 €, a los cuales habrá que añadir 20€ por km del sendero)**
**Volver a firmar este compromiso pasados cinco años.**

La Federación Guipuzcoana de Montaña realizara estudios periódicos de los senderos del territorio. Cada 5 años serán revisados todos los senderos de Gipuzkoa.

Si el promotor no cumple estos requisitos, el sendero será deshomollogado y se quitará del registro oficial. En ese caso el promotor correría con los gastos de eliminación de la señalítica en su conjunto.

10. Los senderos homologados que discurran total o parcialmente por un espacio natural protegido, deberán aportar la autorización del órgano gestor del mismo.

Donostia, a 2 de febrero del 2011